



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
URRIA 2025



Síguenos en ZizurArte:
www.zizurmajorcultura.es



EGUTEGIA



ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



HAUR
ANTZERKIA



HAUR
MUSIKA



MUSIKA

URRIA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30	31	

EGUNA

- 03 ANTZERKIA** "El hombre aro y la chica que buscaba a Lorca"
ILUNA PRODUCCIONES
- 05 HAUR ZINEMA** "Flow. Un mundo que salvar"
GINTS ZILBALODIS
- 10 ANTZERKIA** "Natalia"
LA CHANA TEATRO
- 12 ANTZERKIA-HAURRENDAKO MUSIKA**
KLASIKOA "Ad libitum"
LAPSO PRODUCCIONES
- 17 ANTZERKIA** "El jardín de las posibilidades"
EL TEJO PRODUCCIONES
- 24 MUSIKA** ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA
BANDA eta SERGIO ESLAVA
- 25 ANTZERKIA** "Escape Room"
TXALO PRODUKZIOAK
- 26 MUSIKA** Psalm Men Voice
NAFARROAKO NAZIOARTEKO XXX.
ABESBATZA ZIKLOA
- 31 MUSIKA** BLACK FRIDAY

AHAL DUZUN GUZTIAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ



ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN

Antolatzaileak:



Diru-laguntzaileak:

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



DEPARTAMENTO DE CULTURA Y LEISURE



PLATEA

PROGRAMA ESTATAL DE ARTES ESCÉNICAS

L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



BILATU PROMOZIOAK!



9€

**BIKO
ANTZERKIA
BONUA**

"Natalia"
LA CHANA
TEATRO
2025/10/10



"El jardín de las
posibilidades"
EL TEJO PRODUCCIONES
2025/10/17

12€

**HIRUKO
ANTZERKIA
BONUA**

"El hombre aro
y la chica que
buscaba a
Lorca "ILUNA
PRODUCCIONES
2025/10/03



"Natalia"
LA CHANA
TEATRO
2025/10/10



"El jardín
de las
posibilidades"
EL TEJO
PRODUCCIONES
2025/10/17



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE

TXARTELAK (12 eta 30 urte

bitartekoentzat): 4 euroko edo

4 eurotik gorako sarreretan

%50eko murrizketa. Ez da

aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela
eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera
bat haur zinema emanaldietara
haurra laguntzera joaten den
helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua
eskatzeko txartel eguneratua
aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

**Irailaren 24ko (asteazkena)
09:00etatik aurrera.**

1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera

09:00 - 21:00

- Larunbatetan

10:00 - 14:00

17:00 - 21:00

- Igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00

- Ikuskizuna hasi baino
ordubete lehenago.

2. INTERNET

www.zizurmajorcultura.es/eu

Egiatzatu zure erosketa
eta ez ahaztu sarrera.

Gogoan izan, kosturik gabe



OINARRIZKO ARAUAK

Puntualtasuna: Behin ikuskizuna
hasita, inork ez du sartzerik
izanen aretoan.

Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak
daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan
behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin
gomendatura doitzea
aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna
adin horretarako denean baizik
ez dute bertaratzerik izanen.

- 3tik 7 urtera: heldu batek
lagunduta joan beharko dute.

Ostirala

03



ANTZERKIA

El hombre aro y la chica que buscaba a Lorca

ILUNA PRODUCCIONES

20:00

6€

70 min



José ijito gazteak bidaiatu nahi du ezarria dioten etorkizunetik ihes egiteko. Marinaren aterpe bakarra poesia da bere etxe barneko giroan. Bestelako bizitza irudikatzeko idatzi nahi du, bai eta Lorca ezagutzeko nahia betetzeko ere. Biek ere beren herritik alde eginen dute, Bartzelonara joan eta 1936ko Herri Olinpiadan parte hartzeko, Berlingen egitekoa den olinpiadari

erantzun anti faxista emate aldera. Bizitzak (tartean, beraiena) alda ditzakeen kirol edo joko berri bat aurkeztu nahi dute. Adiskidantza eta maitasun istorio bat da, xalotasunez eta aurkikuntzaz nahiz tragediaz eta itxaropenez bete, mundua urratzen ari den bitartean. Omenaldia Lorcarri eta ijito herriari.

Igandea

05



HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

Flow. Un mundo que salvar

GINTS ZILBALODIS

18:00

3€

83 min



Katu bat urez betetako mundu batean esnatu da. Gizakien arraza desagertu omen da. Itsasontzi batera joan da babestera, beste animalia batzuekin batera. Baina haiekin ongi moldatzea are erronka handiagoa da urari dion beldurra gainditzea baino.

Ostirala

10



ANTZERKIA

Natalia

LA CHANA TEATRO

20:00

6€

60 min



Sendaberri
"El teatro es el arte de la vida"

Antolatzailea:



Diru-laguntzailea:



**Ikuskizunaren
ondotik, topaketa
talde artistikoarekin.**



La Chana taldeak "Talpa" ipuinaren egokitapena egin du eta emaitza "Natalia" da. Hura Juan Rulfok barneko harraz idatzitako ipuin bat da. Oso ipuin gogorra, esaldi bakoitza zauri bat baita. Ipuinak alferrikako

itxaropena dakar. Ipuin mingarria baina bikaina. Mintzaten ez diren txotxongiloak, dantzaten ez den dantzaria, nortasunik gabeko pertsonaiak, guztiok irudikatzen gaituzten figurak. Ez beldurtu. Oso ederra da.

Igandea

12



HAUR ANTZERKIA

HAURRENDAKO MUSIKA KLASIKOA

Ad libitum

LAPSO PRODUCCIONES

18:00

6€

60 min



"Ad libitum" aldi berean da antzezlan eta kontzertua. Kontzertuak konbentzionala dena hautsi eta lan klasiko handiak berrinterpretatzen ditu, batere ohikoak ez diren instrumentuekin: *Tripticófono Tuboidal*, *Serrucho Tenor*, *Vidriolín* eta *Vidriocello* *Copodivarius* edo *Olivetti*

perkusoioak, besteak beste, umore zuriz eta erabateko sormen askatasunaz arituz. Azken buruan, Ad Libitum-ek nahierara esan nahi du latinez. Eta sekulako gauza bat, hots, zer eta historiako musika klasikoko lan guztiak barnebiltzen dituen 5 minutuko laburpen bat.

Ostirala

17



ANTZERKIA

El jardín de las posibilidades

EL TEJO PRODUCCIONES

20:00

6€

80 min



Federico García Lorca bere "Suites" lanean kontatzen du El Jardín de las Posibilidades izeneko leku zoragarria ezagutzen duela. Inoiz izan ez diren maitasunak bizi dira bertan, jaio ez ziren seme-alabak eta inoiz hartu ez ziren erabakiak. Agian, oraindik ere han bizi da bere bihotzeko laguna, Emilia Llanos, izan ez zen maitasun

batean tematuta. Bada, hau maitasun horren istorioa duzu eta, era berean, Emiliak eta Agustín Penonek 1955ean egindako lehen ikerketarena, Lorcaren azken orduak nolakoak izan ziren, nork erail zuen eta non dagoen ehortzia jakiteko.

Ikuskizunaren ondotik, topaketa talde artistikoarekin.

Ostirala

24



MUSIKA

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA ETA SERGIO ESLAVA

20:00

2€



Larunbata

25



ANTZERKIA

Euskaraz

Escape Room

TXALO PRODUKZIOAK

20:00

6€

90 min



Haurtzarotik lagunak diren bi bikotek hitzordu bat jarri dute elkarrekin escape room bat bisitatzeko. Escape rooma dagoen auzoan, gizon baten gorpua agertu berri da zatikaturik edukiontzi batean... Lau lagunek jolas atsegin eta dibertigarria aurkitzea espero dute, beren adimena probatzeko eta barre egiteko. Aldiz, gelan sartu eta atea hermetikoki ixten den unean bertan, atzera-kontua hasiko da: gauza bitxiak pasatzen hasiko dira. Ihes-gelatik ateratzea ez da ez erraza izanen, eta minutuak joan, minutuak etorri, jolasa bene-benetako infernu bat bilakatuko da, lau lagunen arteko adiskidetasuna kinkan jartzeraino. Baina kasu! Ez dirudien arren, hau komedia bat da... beldurrezko komedia bat!

Igandea

26



MUSIKA

Psalm Men Voice (Jakarta - Indonesia)

NAFARROAKO NAZIOARTEKO XXX. ABESBATZA ZIKLOA



12:30
4€



Gizonezkoen abesbatza, Jakartakoa, 2017ko apirilean sortua, jatorri kristau eta katolikoko 70 gaztek osatua. Musika-bikaintasunarekin batera, ministerioa da abesbatzaren eginkizuna, musika korala baliatuz. Azkenaldiko sarien

artean, nabarmentzekoa da lehen saria eskuratu duela Ahots Berdinen eta Erligio Musikaren kategorian International Choir Festival jaialdian (2024); eta lehen finalista Musika Sakroan eta Ahots Berdinetan Karangturi Nazioarteko Abesbatza Sariketan (2023).

Ostirala

31



MUSIKA

BLACK FRIDAY



21:00
5€



Black Fridayk rockean, popean eta folkean dihardu, 2015ean bidetara heldu zionetik. Hamar urteko ibilbidean, single aunitz argitaratu dituzte; haietan ederki nabarmentzen da bai ahots bakarlarik urratu bat, bai tronpetak protagonista bat –banden lorratz musikalari jarraikiz, hala nola La Maravillosa Orquesta Del Alcohol–. Azkenetako kontzertu arrakastatsuetako bat Canalla aretoan izan da, sarrera guztiak agorturik. Taburete-rekin eta Luis Fercánek aritu dira eszenatokian.